

NAROA AGIRRE PERTIKA JAUZILARIA; EUSKADIKO ERREKORRAREN JABEA**«4,15 marka ona da Euskal Herrian, baina European eta munduan, ez»**

Naroa Agirre 22 urteko gazte donostiarrak arrakasta handia lortu du pertika jauzian, Euskadiko errekorra hobetuta (4,15). Marka horri garrantzia kendu dio kirolariak, eta egunez egun bizitzeko asmoa duela dio, «etorkizunean gehiegi pentsatu gabe».

Andoni Urbistondo | **DONOSTIA**

Hitz-jario errazekoa da Naroa Agirre. Komunikabideon dei andana atseginez jaso du, eta luze, lasai erantzuten dio galdera orori.

■ Zenbat urte daramatzazu pertika jauzia egiten?

Atletismoan ikastolan hasi nintzen, laugarren mailan. Atletismoan eta saskibaloian hasi nintzen. Berez, luzera jauzia aukeratu nuen. Saskibaloian ere jokatzen nuen [1.76 da], baina kirol hori eta luzera jauzia utzi nituen. Saskibaloia, asko nekaketen nintzelako entrenamendu eta partidekin. Luzera jauzia, ez nuelako espero bezainbeste hobetu. 16 urterekin pertikan hasi nintzen, diziplina horretan entrenatzen ari zirenak ikustea oso erakargarria egin zitzaidalako. Probatu egin nuen, gustura hasi nintzen, baina orduan Girona eta Bartzelonara (Katalunia) joan nintzen Ingurugiro Zientziak ikastera. Ikasketekin ezin bete-betean aritu eta, gainera, ez nuen oso garbi nire etorkizuna atletismoari lotuta egongo zen ala ez. Donostiara itzulita [iazko ekainean] serio hasi nintzen, plangintza batekin, jarraipena egunero eginda, Jon Karla Lizeaga entrenatzaile eta mutil-lagunarekin.

■ Euskal Herriko marka onena ondu duzu. Zure bilakaera bat-batekoa izan al da?

Ez, ez. Orain bost urte 3.50eko marka nuen; iaz 4.10 lortu nuen pista estali gabea eta 4.05 pista estalian. Aurten zortea eduki dut, lehiaketetan marka ona egin dudalako, baina batek daki. Sasoi nago, baina sasoi onak ez du derrigor marka ona lortzen laguntzen. 4.15eko marka eskura nuen marka da. Fisikoki ondo nengoen, baina buruz, ostera, ez. Entrenamenduetan ere ez nintzen gustura, bete samar nengoen, baina hirugarren jauzian 4.10 gaintitu nuen. 4.15 jauziarekin saiatu nintzen eta langa gaintitu nuen.

■ Zer pentsatzen du Naroa Agirrek 4,15eko marka lortuta?

Tira, ez da hain marka ona. Euskal Herriko marka onena da, Es-

ANDONI CANELLADA / ARGAZKI PRESS

**TEKNIKA**

“Abiadura eta indarra dira pertika jauziko giltzak. Marka ona lortu dut, baina nire teknika ez da ona. Askok hobetu behar dut»

ETORKIZUNA

“Ez dut gustuko etorkizunean pentsatzea. 4,10eko langak ozta-ozta eutsi zion. Erori balitz, nire markak ez zuen lortuko oihartzun handirik»

painiako betiko bigarren marka onena (4.24 da errekorra), baina Europa eta munduan ez da marka garrantzitsua. Munduko errekorra 4.81 da, eta Europako Txapelketaren batean aritzeko gaintitu beharreko marka, 4.25. European bada marka hori gaintitua duen dozena bat jauzilari. 4.25 lortu dezakedan marka da, baina urruti ikusten dut. Pentsa munduko marka.

■ Pertika nahiko kirol ezezaguna da. Nolakoak dira pertikak?

Pertikek neurri ezberdinak dituzte. Mutilenak 4,60, 4,90 eta 5 metrokoak dira. Neskenak 4,30, 4,40 eta 4,60koak, moldatutakoak. 3,70 eta 4 metrokoak ere badaude. Nik 4,30eko pertikak erabiltzen ditut.

■ Eta zein da jauzia egiteko teknika?

Giltzetako bat pertika zuloan ondo sartzea da. Zulo hori pistako zorua baino 20 zentimetro beherago dago. Pertikaren neurria, beraz, 4,10ekoa da. 4,15 gaintitu nuenean bost zentimetrotan bakarrik gaintitu nuen pertikaren luzera. Mutil batzuk metro batean gaintitzen dute. Abiadura ere garrantzitsua da, indarra bera bezainbeste. Nola-ko abiaduran sartu, halako abiaduran aterako zara pertika uztean langaren parean zaude-nean. Ahalik eta indar handienarekin hasi behar da jauzia; indar berarekin utziko duzu pertika. Teknika ona eduki behar da, nahitaez. Pertika une egokian askatzen jakitea erabakigarria da; bestela, abiadura eta indarra alferrikakoak dira. Teknika asko hobetu behar dudun arloa da.

■ Nola hobetu dezakezu arlo hori?

Jauzi asko eginda.

■ Gogorra da pertika jauzilarien eguneroko bizitza? Ordu asko entrenatzen zara?

Ez, ez. Hiru bat ordu orain, denboraldi hasieran, arratsaldetan, eta lehiaketak hasten direnean bi ordu inguru.

■ Eta profesional egiteko aukerarik ba al duzu?

Zure markaren arabera, diru laguntza handiagoa edo txikiagoa daukazu. Atletiko San Sebastianek materiala ematen digu eta Kirolgiko, Euskadiko eta Espainiako Atletismo federazioek ere diruz laguntzen naute. Nahi duzun kirola egitea eta hortik bizi ahal izatea polita izango litzateke, baina... Profesionala izatea ia ezinezkoa da. Ez dut gustuko etorkizunean gehiegi pentsatzea. 4.10eko langak ozta-ozta eutsi zion erori gabe. Erori balitz, nire markak ez zuen hainbesteko oihartzuna edukiko. Ikasketak bukatu, titulua eskuratu eta lana bilatzea da orain garrantzitsuenak.

■ Atenasko Olinpiar Jokoe-tan parte hartzea erronka polita izango da zuretzat?

Bai, orain horretan pentsatzen dut. Espainiako eta Europako txapelketa asko daude tartean, baina Atenas hitzordu berezia izango da.

SASKIBALOIA**ACBko buruan jarraitzen saiatuko da Tau, Breogan sendoari irabazita**Jon Rejado | **GASTEIZ**

Unicajaren kontra galdu ostean sailkapenean utzi zuen tokira itzuli nahi du Tau Baskoniak, eta hori lortzeko, ezinbestekoa da gaur Breogani irabaztea. Sailkapeneko burua hurbiltzeko helburua garrantzitsua da, batez ere Kopari begira. Zenbat eta gorago sailkapenean, orduan eta talde apalagoa izango luke Gasteizko taldeak lehiaketa horretako lehen partidan, teoriarik. Lugon irabazteko, bigarren joko antolatzailea erabiltzeko aukera izango du Dusko Ivanovicek, Charles Byrd antolatzaileak gainontzeko taldekideekin egin baitzuen bidaia atzo.

Dusko Ivanovicek argi adierazi zuen Lugoarentz abiatu aurretik Byrden parte-hartzea une jakin batzuetara mugatuko dela, batez ere oso zaila delako sistema guztiak hain tarte txikian ikastea. Nolanahi, Corchianiri atsedean hartzeko minutuak emateko aukera asko eskertu zuen Montenegroko entrenatzaileak. Gainera, etorri berri den joko antolatzailea jaurtitzailerik bikaina da, eta hiru-ko lerrotik asko lagun diezaioke taldea.

Breoganek ere garaipena behar du zortzi lehen artean segitzeko. Tau Baskoniako bigarren entrenatzaile ohi Paco Garciak talde sendoa osatu du Lugon, saskipea ACB Liga bikain ezagutzen duten bi atzeritarren esku utzita: Devin Davis eta Bobby Martin.

Breogan-Tau Baskonia**Txapelketa:** ACB Ligako

hamaseigarren jardunaldiko partida.

Sailkapena: Breogan 8. (8 irabazi-7 galdu); Tau Baskonia 4. (11 irabazi-4 galdu)**Bartzelona:** J. Odriozola, D. Davis, Ruiz Llorente, J. Lazaro, C. Sanmartin, Nikola Loncar, F. Ovelleiro, E. Ezugwu, N. Biota, R. Gonzalez, Bobby Martin.**Tau Baskonia:** C. Byrd, Chris Corchiani, S. Vidal, L. Foirest, A. Nocioni, Hugo Sconochini, L. Scola, Fabrizio Oberto, Dejan Tomasevic, Gabriel Fernandez.**Tokia:** Pazo dos Deportes (Lugo).**Ordua:** 19.15ean (Canal +).